

Biktimak eta memoria

Antton Izagirre

Azaroaren 10ak biktimak omentzeko ala biktimak gogoratzeko eguna izan behar du? Ez ote da alderik ikuspegi bien artean? Batzuentzat egunak beren gertuko biktimei aitortza egin beste helbururik ez du. Biktimak sailkatu, biktimak politikoki erabili eta argi utzi ez dagoela biktimarik ETak eragindako biktimetatik haratago. PP eta eskuin osoaren lerro politikoa ez dago bestelako irakurketarako lekurik. PPK bere neurrira domestikatu dituen biktima elkarteek errelato hertsia eta bakarraren hautua egin dute. Modu horretan, gatazka politiko eta armatuak eragindako ondorioak eta zauriak denboran itxi gabe mantentzeko hautua

egin dute, bide seguruenak izanik hori arrazoi eta auzi politikoen eztabaidari tokirik ez uzteko. Memoria, biktimak, jasandako mina... irtenbiderik gabeko eztabaidatan katramilaturik mantentzen den bitartean aukera gutxiago legoke muin politikoari sakontasunez heltzeko. Hori badaki Estatu espainiarreko eskuiak eta bizirik mantentzeko ezinbestekoa du auzia irtenbiderik gabe eta piztuta mantentzea. Euskal Herrira etorrita EAJk ere ez dio uko egin nahi biktimen auzia bere interesen arabera erabiltzeko aukerari. EAJ ere bere interesen neurrira antolaturiko biktimaz baliatzen ari da, zertarako eta, ezker abertzalearen aurrean errentaga-

rritasun politikoa lortzeko. Zertara dator, bestela, Urkullu, Fernandez eta enparauek behin eta berriz ezker abertzaleari soilik autokritika eskatzea? Hain minbera den gai honetan lidergoa hartu nahiko lukeenak komunikabideen aurreko hitz gutxiago eta sukaldeko isilpeko lan gehiago beharko luke. Ezker abertzalearen aurkako auzitegie-tako epaiketak eguneroko albiste direnean, preso gaixoen aferak, sakabanaketak eta senideen aurkako jazarpenak irauten dutenean, ez da zuzena beste aldera begira jarraitzea. Bide horretatik ez da konponbiderik nahi, aurkari politikoa umiliatzea nahia-go. •

Unilateralki

Andoni Egia

Egia, erabaki unilateral bat dela irakurri nion behin Slavoj Zizek berrari, ez dakit zein liburutan. Mundua azkar doa. Beste arrazoi askoren artean, batetik, komunikaziorako teknologien iraultzak punta bateko eta besteko komunitateen arteko komunikazioa ahalbidetu du, bat-batekoa eta horizontala; orain arteko botere komunikatiboaren, eta ondorioz politikoa-ren, arkitektura hierarkiko eta bertikala ezbaian jarritz. Bestetik, egungo krisi sistemikoak, kapital metaketaren ziklo berri baten atarian ipini gaitu, zeinetan, mundu mailako egitura ekonomikoaren berrartikulazioa ematen ari den; zentro-periferia harremanak eraldatuz, eta orain arte zentroan kokatzen ziren eskualde batzuen periferiza-

zio prozesua eraginez. Hegoaldeko Europarena kasu. Egiturazko aldaketa politiko zein ekonomiko hauek, aurreko ziklo historikotik jaso ditugun egitura instituzionalak zein kontsentsu sozialak kolpatu ditu bete-betean; arrakalak irekiz eta posible denaren ertzak zabalduz. Katalunia eta Eskozia, edo Ekuador eta Bolivia adibide. Herrialde hauek erakusten dute posible dela. Posible dela norbanakoaren etorkizuna eskuetan hartu, eta etsairik indartsuenaren aurrean ere bide propioak eraikitzea, prozesu autoeratzailleak abiaraztea. Hemen eta orain, baimenik eskatu gabe. Unilateralki. Ingurura begiratu eta ikasteko garaia da; erabaki estrategikoak hartzeko momentua. Autoeraketa prozesua, subiranotasun esparruak eraikitzean datza, pluralean eta ko-

lektiboki. Gertuenetik hasi eta urrutiraino ailegatuz, eskala bakoitzerako proposamen zehatzak diseinatu. Adibideak ditugu; bidelagun egin ditzagun: Katalunia, Eskozia eta Grezia. Ekuador eta Bolivia. Urriaren 24an Euskal Herria “Alternatiben EHrria” dela ikusi genuen. Askok, imajinatu ere egiten ez genituen orotariko alternatibak ezagutu genituen: ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta politikoak; orain arte, politika ofizialaren bazterrean kokatu diren alternatibak. Euskal Herri subiranoaren aldarrikapenaren itzalak, ilunpean utzitako subiranotasunen aldeko proposamen zehatzok, askapen prozesuaren zentroan kokatzeko garaia da, subiranotasunetan oinarritzen den autoeraketa prozesua abiarazteko momentua. Hemen eta orain, baimenik eskatu gabe. Unilateralki. •